



# GIZARTE PSIKOLOGIA

4. Atala. ERAGIN SOZIALA



# 4. Atala. ERAGIN SOZIALA: Edukiak

- 1) **Eragin Soziala**
- 2) Arau Soziala – Normalizazioa: Arauek jarreran duten Eragina
- 3) Arau Sozialekiko Konformismoa
  - 3.1. Eragin Informatiboa
  - 3.2. Arauzko Eragina
  - 3.3. Gutxiengoaren Eragina
- 4) Autoritateari Obedientzia



# Pentsatzeko...

---

- Pertsona baten pentsamendu, sentipen eta portaeran zer nolako eragina du taldekideen iritziak?
- Zergatik dute besteen iritziak eragina gugan? Ze motatako eragin sozialak daude?
- Zergatik dira batzuen iritziak hain garrantzitsuak guretzat, eta beste batzuenak ez hainbeste?
- Zer eragin dauka kulturak konformismoan eta konformismo mailan?
- Noiz egiten dugu autoritateak esaten duena?
- Zer egin dezakegu besteen eraginari uko egiteko?



# 1) Zer da Eragin Soziala

- Modu desberdinak egon dira definitzeko:
  - Konformismoa
  - Onarpena
  - Obedientzia
  - Segimendua
  - Konplazentzia



# 1) Zer da Eragin Soziala

---

- ▣ “Pertsona baten portaera edo iritzietan aldaketa, beste pertsona edota taldearen presio errealak edota irudipenezkoen eraginez” (Aronson, 1979)
- ▣ Prozesu zabala da: “**norbanakoaren eta taldearen** irizpidearen arteko gatazka inplikatzeko duena”



# 1) Zer da Eragin Soziala

- Eragin sozialaren ikerketa klasikoak eta oinarrizko prozesuak

**Normalizazioa – M. Sherif, 1935**

**Konformismoa - S. Asch, 1951**

**Obedientzia – S. Milgram, 1974**



# 4. Atala. ERAGIN SOZIALA: Edukiak

- 1) Eragin Soziala
- 2) **Arau Soziala – Normalizazioa: Arauek jarreran duten Eragina**
- 3) Arau Sozialekiko Konformismoa
  - 3.1. Eragin Informatiboa
  - 3.2. Arauzko Eragina
  - 3.3. Gutxiengoaren Eragina
- 4) Autoritateari Obedientzia



## 2) Arau Soziala – Normalizazioa: Arauek jarreraren duten Eragina

### □ **Zer dira Arau Sozialak**

Arau soziala **pentsatzeko, sentitzeko edo portatzeko** modu bat da, orokorrean pertsonak, talde zehatz batean, onartzen eta egoki ikusten dutena

- Arauek irudikatzen dute talde batean zer den egia edo gezurra, egokia edo desegokia
- “Egin behar dut” adierazpenak.
- Adibidez: ohiturak, iritzi publikoa, gauzak egiteko modua, moda



## 2) Arau Soziala – Normalizazioa: Arauek jarreraren duten Eragina

- Nola sortzen dira **Arau Sozialak** edo nola ematen da **Normalizazioa**?


### □ Efektu autokinetikoa

- Muzafer **Sherif**, 1935
- **Lana**: orratz-buru baten neurriko argiaren mugimendua neurtzea (ilusio optikoa)
- **Baldintzak**: bakarrik vs taldean



## 2) Arau Soziala – Normalizazioa: Arauek jarreraren duten Eragina


- Sheriff en esperimentua
- **Helburua:** Taldeak kideen iritzietan izan dezakeen eragin indarra erakustea
- Ilusio optikoekin egindako esperimentua (gela iluna - argi-puntu bakarrarekin – egoera **anbigua**). Partehartzaileek mugimendurik egon zen edo ez erabaki behar zuten.
- Indibidualki pertzepzio desberdinak, baina talde bezala, 3 sesiotan kontsensusa iritsi.



<https://www.youtube.com/watch?v=0DolxN6B4PQ>

## 2) Arau Soziala – Normalizazioa: Arauek jarreraren duten Eragina

- Sheriff en  
esperimentua
- **Ondorioak**
  - 1) Bakarka arau pertsonala  
eratzzen zen
  - 2) Taldeetan nolabaiteko  
talde-konbergentzia  
konsensua edo  
normalizazioa ematen  
zen



## 2) Arau Soziala – Normalizazioa

- Normalizazioa: gogoetak, esperientziak, adibideak



## 2) Arau Soziala – Normalizazioa: Zergatik ematen da Normalizazioa



### ***Erreferentzia markoaren*** hipotesia:

Informazio objektiboaren gabezia, besteen erantzunak balio informatiboa dute, subjektuaren ziurtasun-falta urritzeko

### ***Gatazka ekiditzearen*** hipotesia:

Gatazka ekiditzeko (besteekiko desadostasuna ez adierazteko) (Allport 1924; Moscovici eta Ricateau 1972)





## 2) Arau Soziala – Normalizazioa:

Arauek jarreraren duten Eragina

### □ Nola gidatzen dute gure portaera **Arau Sozialek?**

- Arau sozialak kontuan hartu behar dira portaera gidatzeko (ezagutu egin behar dira)
- Seinale sotilak bereziki eraginkorrak dira arauak pizteko
- Taldean egoteak indibidualtasuna galtzea ekar dezake, norberaren-kontzientzia gutxitzea eta talde-identitatea jasotzea.
  - Indibidualtasuna galtzeak, erantzukizun pertsonala gutxitzea dakar
  - Indibidualtasuna galtzeak, talde-arauei obedientzia gehitzea dakar

## 2) Arau Soziala – Normalizazioa:

### Akordio Faltsuaren Efektua

Normalizazioan kontsensua ematen da baina...  
Zer da Akordio Faltsuaren Efektua?

Gure iritzia edo portaera komuna dela pentsatzea, besteek guk bezala ekin eta pentsatzen dutela.





# 4. Atala. ERAGIN SOZIALA: Edukiak

---


- 1) Eragin Soziala
- 2) Arau Soziala – Normalizazioa: Arauek jarreran duten Eragina
- 3) **Arau Sozialekiko Konformismoa**
  - 3.1. Eragin Informatiboa
  - 3.2. Arauzko Eragina
  - 3.3. Gutxiengoaren Eragina
- 4) Autoritateari Obedientzia



# 3) Konformismoa

**Konformismoa:** erantzun indibidualak talde arauetara / arau sozialetara egitean datza. Gure portaera aldatzen dugu besteena bezalakoa izateko

- Pentsatzeko: Zergatik konformatzen da jendea arau sozialekin?



### 3) Konformismoa



[https://www.youtube.com/watch?v=S0xCv\\_S2JJM](https://www.youtube.com/watch?v=S0xCv_S2JJM)

**GALDERA:**

Gauza subjektiboekin edo garrantzia ez dutenekin erraza da ulertzea jendeak iritziz aldatzea, baina... gai edo gauza objektiboekin zer pasatzen da?

**Asch, Igogailuko  
Esperimentua, 1962**

# 3) Konformismoa

## Gehiengoaren eragina

Solomon **Asch**, 1951




# 3) Konformismoa

## Asch-en esperimentua

### **Lana:**

eskubian dagoen hiru lerroetatik (8, 6,25, eta 6,75 pulgadetakoak) zein da ezkerrean dagoen lerroaren antzekoa




### **Baldintzak:**

7-9 subjektuen artean 1 zen esperimentala eta besteak ikerlariaren kideak.

Erantzunak: indibidualki, publikoki.

<http://www.youtube.com/watch?v=TYIh4MkcfJA>

# 3) Konformismoa




• <http://www.youtube.com/watch?v=TYlh4MkcfJA>

• [http://www.youtube.com/watch?v=uuvGh\\_n3l\\_M](http://www.youtube.com/watch?v=uuvGh_n3l_M)

- Helburua: konformismoaren eragina erakustea
- Ze lerro -2. argazkian – da lerro estandarraren antzekoena?
  - Individualki
  - Publikoko (kontsensua, ezadostasuna)
- Ondorioak:
  - Kontrol taldean subjektuen % 95ak ez du akatsik egiten
  - Talde esperimentalean aldiz % 26a bakarrik mantentzen da taldeko eraginetik askea.
  - %25ak presio sozialaren eraginez lerro okerra baieztatzen du kontsensua lortzeko

# 3) Konformismoa

## Asch-en esperimentua



- Erreakzio desberdinak
  - ▣ Talde konformismoa. Harrituta, barregarri sentitzen ziren
  - ▣ Besteekin bat egiten ez zutenak ez ziren gustura sentitzen
  - ▣ Ezin zuten egoera ulertu, edo gertatzen ari zena sinistu, eta taldekoak zuzen zeudela pentsatzen zuten.
  - ▣ Publikoki adostasuna, baina portaera / jokabidean aldaketa azaleko / superfiziala

Zer gertatzen da adostasunik ez denean (osoko adostasun falta)?

- ▣ Konformismoa gutxitu egiten da

# 3) Konformismoa

## □ Adostasunaren indarra

- Konformitateak errealitateri buruz zerbait esaten digu
- Erabiltzen diren talde-arauak zuzenak direnean gure kontrolatzeko beharra asetzen dute
- Konformitateak hanka sartzeko probabilitatea gutxitzen du (batez ere egoera ezezaguna denean)
- Orokorrean onarpen pribatua ematen da (iritzi aldaketa)

## □ Desadostasunaren ondorioak

- Sorpresa, nahasmena, ziurgabetasuna, zalantza...
- Errealitatea interpretatzeko dugun konfiantza ahuldu egiten du



The tendency to conformity in our society is so strong that reasonably intelligent and well-meaning young people are willing to call white black. This is a matter of concern. It raises questions about our ways of education and about the values that guide our conduct.

— Solomon Asch —



# 3) Konformismoa

## Eragina duten beste elementu batzuk:

- ▣ Taldearen tamaina: hirutik gorakoa (Milgram et al 1969)
- ▣ Ahobatezkotasuna (Allen eta Wilder 1977)
- ▣ Babes Soziala (Allen eta Wilder 1977)
- ▣ Estimulu-Anbiguotasuna (Sperling 1946)
- ▣ Taldearen erakargarritasuna (Lemaine et al)






# 3) konformismoa

## Konformismo motak (Kelman, 1971)

- **Sumisioa edo Menekotasuna**
  - Sariak bilatu edo zigorra ekiditu
  - Eraginaren elementua: **Boterea**
- **Identifikazioa**
  - Taldearen balorazio positiboa bilatzen da.
  - Eraginaren elementua: **Erakarpena**
- **Barneratzea**
  - Aldaketa boluntarioa
  - Eraginaren elementua: **Sinesgarritasuna**





# 4. Atala. ERAGIN SOZIALA: Edukiak

---

- 1) Eragin Soziala
- 2) Arau Soziala – Normalizazioa: Arauek jarreran duten Eragina
- 3) **Arau Sozialekiko Konformismoa**
  - 3.1. Eragin Informatiboa
  - 3.2. Arauzko Eragina
  - 3.3. Gutxiengoaren Eragina
- 4) Autoritateari Obedientzia



# 3) Konformismoa

Konformismoa ematen da (Deutsch & Gerard, 1955).

3.1. Eragin Informatiboa

3.2. Eragin Normatiboa edo Arauzko eragina

**Eragin informatiboa** (ziurtasun-beharra: zuzena izateko) vs. **Arauzko eragina** (onespen soziala: onartua izateko) (Deutsch & Gerard, 1955)

# 3.1. KONFORMISMOA: Eragin informatiboa

## □ Noiz ematen da?

### □ Ziurgabetasun egoeretan (Sherif-en ikerketa)

- Zenbat eta ziurgabetasun handiagoa orduan eta besteengan konfiantza gehiago

### □ Krisi egoeretan

- Denbora ez dagoenean, berehala jardun behar dugunean, ez dakigunean...besteak imitatzen ditugu (nahiz eta hauek ere agian berdin sentitu...)

### □ Besteak **adituak** direnean

### □ Ekintzak edo egoerak **garrantzitsuak** direnean



# 3.1. KONFORMISMOA: Eragin informatiboa

## □ Kotsentsuaren / Adostasunaren boterea

- Kotsensuak errealitateari buruz zerbait kontatzen digu
- Talde-arauak egokiak direnean, hauekin bat egiteak gure **kontrol-beharra** asetzen du
- Kotsensuak akats indibidualaren posibilitatea gutxitzen du (batez ere eginbeharra anbigua edo zalantzazkoa denean)
- Kotsensuak erreplikazioa ekartzen du
- Onarpen pribatua ematen da normalean (benetako iritzi aldaketa)



## □ Desadostasunaren efektuak / ondorioak

- Desadostasunak sorpresa, nahasmena, zalantza eta autoestimu gutxitzea dakar
- Errealitatearen ikuspuntu propioan daukagun konfiantza hondatzen du



## 3.1. KONFORMISMOA: Eragin informatiboa

- **Komunikabideek eragin sozial informatiboa errazten dute.**
  - Ziurgabetasun egoeretan aukera handiak daude jendea komunikabideetan informazioa bilatzeko
  - Arau sozialetatik urruntzeak zehaztasunik eza dakar
- **Posible da eragin sozial informatiboari uko egitea / erresistentzia?**
  - Beste pertsonak, nik baino gehiago dakite? Adituen bat badago?
  - Beste pertsonen edo adituen ekintzak sinesgarriak dira?
  - Besteak bezala egiten badut, nire baloreen kontra joango naiz?





## 3.1. KONFORMISMOA: Eragin informatiboa

### □ **Konformitatea:** publikoa eta pribatua

#### □ **Publikoa**


- Presioa edota boterea dagoenean
- Publikoki taldearekin bat datoz baina pribatuan uste dute taldeak ez duela arrazoia

#### □ **Pribatua**

- Jendeak benetan pentsatzen du taldeak arrazoia duela
- Portaera ematen da nahiz eta taldekideak ez egon

### 3) Konformismoa

- Konformismoa: gogoetak, esperientziak, adibideak







## 3.2. KONFORMISMOA: Arauzko eragina

- Arauak hartzeak **besteekiko konpromisua** eta **konexioa** demostratzen du
- **Identitate sozial positibo** bat lortzeko eta **besteen errespetua** lortzeko taldekideek taldeko arauak hartzen dituztenean ematen da.
- Konexioaren eta pertenezaren beharra asetzen da

## 3.2. KONFORMISMOA: Arauzko eragina

### □ Taldeetan:

#### □ Taldeko Arauekiko

#### **Konformitatea saritzen da:**

maitasuna, afektua, babes emozionala, ongizatea, ondo pasatzea eta abar.

#### □ Taldeetan Konformitate eza

**zigortzen da:** desberdintasuna, zailtasunak, estresa, trauma, burla, bazterketa eta abar.





## 3.2. KONFORMISMOA: Arauzko eragina

### Noiz ematen da konformismoa?

- Eginbeharrek zalantzarik sortzen ez duten kasuetan, eta zehaztasuna garrantzitsua ez denean (Aschen esperimentua gogoratu)
- Konformitate publikoa eman daiteke konformitate pribatua eman gabe
- Ematen da nahiz eta taldekideak ezezagunak izan
- Eginbehar garrantzitsuetan konformitate gutxiago ematen da, baina eman daiteke (16%)
- **Social impact theory:** taldearen garrantzia (Indarra), taldearen gertutasuna (Gertutasuna) eta taldearen tamaina (Tamaina).

## 3.2. KONFORMISMOA: Arauzko eragina

**Noiz ez da ematen konformitatea arauzko eraginari?**


**Nola egin erresistentzia egokiak ez diren Arauzko Eraginei:**

- **Babesa / Aliantzak** edukitzeak laguntzen du ez konformatzera. Identifikatu eta bilatu pertsona/taldeak gehiangoarekin beti bat egiten ez dutenak
- Zure jokabidea aldatzen al zaude besteen eraginagatik, nahiz eta zure iritziz zuzena ez izan?




## 3.2. KONFORMISMOA: Eragin informatiboa eta Arauzko eragina

- Konformismoa: gogoetak, esperientziak, adibideak



### 3.3. KONFORMISMOA: Gutxiengoaren eragina







### 3.3. KONFORMISMOA: Gutxiengoaren eragina

- Orain arte ikusi dugu **gehiengoak** lortzen zuela gure iritzia edo portaera **aldatzea** baina.....

.....**pertsona** batek edo **gutxiengoak** eragina izan dezakete gehiengoan?

### 3.3. KONFORMISMOA: Gutxiengoaren eragina

- Bai, gutxiengoek aldaketak lortzen dituzte eta **berrikuntza eta aldaketa soziala** ekartzen dute
- Adibidez: Gandhi, Marx, Mugimendu ekologista, Mugimendu sufragista...



facebook

On the Duty of  
Civil Disobedience

HENRY DAVID THOREAU



Henry D. Thoreau






### 3.3. KONFORMISMOA: Gutxiengoaren eragina

#### □ Gutxiengoaren eragina

□ Serge

**Moscovici,**

1969





### 3.3. KONFORMISMOA: Gutxiengoaren eragina

---

#### ❑ **Berrikuntza** (Moscovici, 1984)

Eragin sozialeko prozesu bat, orokorrean persona batek edo gutxiengo batek lideratzen duena, eta ondorengo aldaketak ekartzen dituena:

- ❑ ideia edota portaera berriak
- ❑ betiko jarrerak, ideiak edo portaerak aldatzen dituena

### 3.3. KONFORMISMOA: Gutxiengoaren eragina

- **Nola eragin aldaketa gehiengoa den taldeetan?**
  - Gutxiengoak ezin du eragin sozial normatiboa gauzatu. Pertsonak ez dute desberdin edo arraro bezala agertzea nahi izaten...
  - Bestalde, gutxiengoak diren taldeek eragin sozial informatiboa gauzatu dezakete. Informazio berria eta ustekabekoa ekar dezakete taldera eta hau gai desberdinak aztertzerara behartu
  - Gutxiengoak diren ikuspegiak dituzten pertsonak Konsistentzia mantendu behar dute





### 3.3. KONFORMISMOA: Gutxiengoaren eragina

---

- ❑ **Konsistentziaren Teoria (Moscovici, 1984)**
- ❑ **Pertsonen portaera konsistentea izan behar da eragina izateko:**
  - ❑ Ikuspuntu argia gaiaren inguruan
  - ❑ Mantendu beraien posizioa
  - ❑ Aurre egin gehiengoaren presioari
  - ❑ Ekiditu kontraesanak

**Eragin Soziala Informatiboa da**

### 3.3. KONFORMISMOA: Gutxiengoaren eragina

#### Paradigma berde-urdina edo KONBERTSIO EFEKTUA


(Moscovici et al 1969)

- Lana: diapositiben kolorea eta intentsitatea neurtu (benetan denak urdinak ziren eta intentsitate aldakor)
  - 6 pertsona publikoki kolorea esan behar zuela
  - 2 konplize eta 4 esperimentalak
  - 3 egoera:
    - **Kontsistentea:** konplizeak beti “berdea”
    - **Inkontsistentea:** 24 berdea eta 12 urdina
    - **Kontrola:** konplizerik gabe

### 3.3. KONFORMISMOA: Gutxiengoaren eragina

#### Emaitzak: Noizbait berdea esan zuten?

- ▣ **Kontsistentzia:** eragina: %8,42
- ▣ **Inkontsistentea:** eragina: %1,25
- ▣ **Kontrola:** eragina: %0,25





# 4. Atala. ERAGIN SOZIALA: Edukiak

- 1) Eragin Soziala
- 2) Arau Soziala – Normalizazioa: Arauek jarreran duten Eragina
- 3) Arau Sozialekiko Konformismoa
  - 3.1. Eragin Informatiboa
  - 3.2. Arauzko Eragina
  - 3.3. Gutxiengoaren Eragina
- 4) **Autoritateari Obedientzia**

### 3.3. KONFORMISMOA: Gutxiengoaren eragina

- Gutxiengoaren eragina: gogoetak, esperientziak, adibideak





## 4) Autoritateari Obedientzia



- Autoritate bezala onartzen dugun norbaiten esanei Obedientzia.
- Beste aukerarik ez daukagula uste / sinisten dugu.

# 4) Autoritateari Obedientzia

## ❑ Obedientzia

- ❑ Kultura guztietan agertzen den arau soziala da
- ❑ Barneratutako araua da (obedienteak gara nahiz eta autoritatea presente ez egon)
- ❑ Min egitera edo hiltzera eramán dezake
- ❑ Batzuetan pertsona “normalek” egiten dituzte portaera horiek (nahiz eta oso gogorrak izan) ohiz kanpoko egoeretan



## 4) Autoritateari Obedientzia



Stanley **Milgram**, 1963



□ <https://www.youtube.com/watch?v=8rocRcUOwFw>

# 4) Autoritateari Obedientzia

- ❑ Lana: Deskarga elektrikoak eman hizkuntza ikasten ari zen ikasle bati: 15 voltetik 450ra.
- ❑ Partehartzaileek bazekiten noiz hasten ziren deskargak arriskutsua izaten





## 4) Autoritateari Obedientzia


---

**Egoera sozialak aktibatzen du obedientzia arau bat. Horretarako:**

- ▣ Taldeak **autoritatea legitimatu** behar du, eta obeditzeko erantzukizuna hartzen dute taldekideek
- ▣ **Autoritateak erantzukizuna** asumitu behar du. Erantzunkizun guztia autoritateari ematen zaio.
- ▣ Obedientzia araua **eskuragarria** izan behar da
- ▣ Beste arau batzuk **ez** dira izan behar **hain eskuragarriak**

## 4) Autoritateari Obedientzia

- Pertsona hauek “normalak” ziren, ez ziren “monstruok”
- Nazismoan ere soldaduak pertsona “normalak” ziren baina...



*A People’s History of the United States: The Civil War to the Present* Kathy Emery and Ellen Reeves, Howard Zinn (2003 ed.) v. I: [ISBN 978-1-56584-724-8](https://www.amazon.com/dp/9781565847248). v. II: [ISBN 978-1-56584-725-5](https://www.amazon.com/dp/9781565847255).

## 4) Autoritateari Obedientzia: obedientziatik giza-basakeriara

### Areagotzea eta egoera batera ohitzea

- Emaitzak:** % 65 heldu zen 450ra
- Obeditzeko eta hitza betetzeko Arau Sozialak partehartzaileen kontra erabili ziren
- Partehartzaileen hasierako obedientziak, esperimientua egiten zuenari aginte eskubidea eta autoritatea baieztatu zizkion
- Partehartzeileek hasieratik eskakizun txikiei obeditzeak legitimitatea kendu zien eskakizuen handiagoei ezetza emateko
- Partehartzeileak gazki sentitu ziren ustez jartzen ari ziren zigorrenatik. Ez du ematen krudelak edo bihotzgabeak zirenik.
- Errepikatu dira eta gaur egun ere emaitzak ematen dira

<https://www.youtube.com/watch?v=y6GxluljT3w>


[https://www.youtube.com/watch?v=6w\\_nlgeklzw](https://www.youtube.com/watch?v=6w_nlgeklzw)



## 4) Autoritateari Obedientzia: obedientziatik giza-basakeriara

### Autojustifikazioa eta erruduntasuna

- Portaera suntsitzailea denean pertsonak ezinegona sentitzen dute (**disonantzia kognitiboa**)
- **Ondorio positiboetan** zentratzen dira
- Arau suntsitzaileak segitzen dituzten pertsonak autoritatearekiko **haserre eta etsaitasuna** sentitzen dute (legitimatua ez badago)
- **Errua biktimari** bota ahal diote (zigorra merezi dutela pentsatu dezakete...)





# 4) Autoritateari Obedientzia: obedientziatik giza-basakeriara

## Disonantzia kognitiboa



# 4) Autoritateari Obedientzia: obedientziatik giza-basakeriara

## Etsaitasuna eta exotaldearen debaluazioa:

- ❑ Ingurugiroan taldearteko harremanak txarrak dira
- ❑ Bazterketa moralak, deshumanizazioa





## 4) Autoritateari Obedientzia: obeditzeko beste arrazoi batzuk

### **Jendeak kaso / obeditu egiten du:**

- Obedientziak dituen ondorio negatibo edo positiboengatik
- Autoritatea legitimoa dela uste dutelako
- Muturreko egoeratan, balore eta eskubideak ere zapaldu egiten dituzte obeditzeko

### **Noiz ematen da muturreko obedientzia?**

- Pertsonak ez dute nahi autoritatea iraintzerik
- Pertsonak beraien portaera justifikatzen dute erantzukizuna autoritateari ematen diotelako. Ez dago erantzukizun pertsonalik.
- Espero den jokabidea ohiturazko bezala ikusten da
- Pertsonak hasieran agindu errazak egiten dituzten eta gero behartuak sentitzen dira zailenak egiteko.

## 4) Autoritateari Erresistentzia

- Milgram-en ikerketan autoritatearen kontra joan ziren pertsonak, egin behar zutenari buruz pentsatzea eta erabakitzea aukeratu zuten pertsona normalak izan ziren
- **Autoritatearen presioari uko egiteko faktoreak:**
  - Eraginaren indarra ezagutzea
  - Beste pertsona bat/batzuk ere desobedientzia bateratua egitea





# Gaiztakeriaren eta ongiaren psikologia (Zimbardo)

## □ **Zimbardoren ideia batzuk:**

- **Lucifer efektua:** pertsonak negatiboak bihurtzeko potentziala, ez negatibo izaera
- **Gaiztakeriaren definizio psikologikoa:** boterearen gauzatze eta erabileran datza – nahita min eman, suntsitu eta krimenak burutzeko
- **Gakoa ez da NOR den arduraduna, baizik eta ZERen ardura daukan**

Zimbardo Punsetekin elkarrizketan: 32 min

<https://www.youtube.com/watch?v=UwmuvCytcd4>



# Gaiztakeriaren eta ongiaren psikologia (Zimbardo)

---

- Nola bihurtzen da jendea gaizkile?
  - Berezko azalpena: THE BAD APPLES
  - Egoerazko azalpena – kanpokoa: THE BAD BARREL
  - Azalpen sistemikoa: eragin zabala (kulturala, politikoa, ekonomikoa...) THE BAD BARREL MAKERS
  
- Pertsona → egoera → sistema



# Gaiztakeriaren eta ongiaren psikologia (Zimbardo)

## □ **Milgramen esperimentua**

- ▣ Gaiztakeria guztiak 15 voltiotan hasten dira
- ▣ Irakasleak esaten zuenean “Jarraitu. Nirenda erantzukizuna”

## □ **Stanford-eko gartzela esperimentua**

- ▣ Instituzioek jokabide indibidual eta taldekoetan eragiteko duten boterea
- ▣ Presoak zenbaki bihurtu ziren, zaindariak botere sinbolo guztiak zituzten (armak, uniformeak, anonimotasuna, itxura-aldaketa)



# Gaiztakeriaren eta ongiaren psikologia (Zimbardo)

## □ Gaizkiaren Bidea

- Lehen pausoak pentsatu gabe egitea
- Besteei gizatasuna kentzea
- Norberaren des-individuazioa (anonimotasuna)
- Erantzukizun pertsonala garbi ez dagoenean
- Itsu-itsuan autoritateari obedientzia
- Talde-arauekin konformismo ez-kritikoa
- Gaizkiaren tolerantzia pasiboa – ezer ez egitea eta indiferentzia

## Zimbardo's path to evil

1. A mindless first step (like agreeing to participate in the Stanford Experiment as a prisoner)
2. Dehumanization (guards ordering prisoners to strip nude)
3. No fear of punishment
4. Deindividuation (playing the role of a guard in a larger group of guards)
5. Blind obedience to authority (like Eichmann's obedience to Hitler)
6. Uncritical adherence to a group ideology (joining the Nazi project)
7. No sense of personal responsibility
8. Passive acceptance of evil through inaction or indifference (some Nazi officials ordered or allowed murders but did not carry them out in person)

**Want to dive deeper into  
Zimbardo's ideas?**

[Learn More](#)